

ARKITEKTO TEKNIKO LANPOSTU BAT BETETZEKO KONTRATAZIO MUGAGABERAKO DEIALDI PUBLIKOAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

LEHENENGOA.- XEDEA

Oinarri hauen xedea da sozietate-xedetzat Bilboko Hiri Birgaikuntza kudeatzea duen SURBISA udal enpresako langile-taldean arduraldi eskusiboan lan egingo duen eta **Arkitekto Tekniko** lanposturako pertsona bat hautatu eta mugarik gabeko lan kontratua egitea.

Hautapen horren ondorioz, sarrera-proba guztiak gainditu baina hautatuak izan ez diren hautagaiak Lan Poltsa batean sartuko dira, bi urteko epean, lanbide-profil honetako plaza hutsak betetzeko eta, hala badagokio, udal eremuan erabilia izateko.

Deialdi publiko hau SURBISAren web korporatiboan eta Hiribilduko egunkari hedatuenetan argitaratuko da eta dagokion Elkargoari jakinaraziko zaio, eta gaitasun, meritua eta berdintasun printzipioak errespetatuko ditu.

BIGARRENA.- LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK

Lan kontratua mugarik gabekoa eta arduraldi eskusiboko erregimenekoa izango da.

Surbisako langile-taldean denbora osorako sartuko da. Kontratuak sei hilabeteko probaldia izango du. Hautapenaren jakinarazpena egin (2025eko otsailerako aurreikusia dago) eta biharamunetik kontatzen hasita, luzeen jota hamalau egun naturaleko epean hasiko da lanpostuan.

Bai soldata bai gainerako lan-baldintzak enpresaren lan hitzarmenean ezarritakoak izango dira. Zehazki esanda, lanpostu honi dagokion urteko soldata gordina 54.613,00 €-koa da, 14 ordainsaritan banatuta; eta lan jardunaldia ordutegi zatituan egiten da neguan, eta lanaldi jarraituan udan.

HIRUGARRENA. LANPOSTUAREN FUNTZIO ETA ARDURAK

Kontratatzekoa den lanpostuaren funtzio eta ardurak deitutako lan kategoriarik dagozkionak izango dira, kontuan hartuta SURBISAk Bilboko erdigune historikoko eta babestutako beste birgaitze eremu batzuetako hiri birgaikuntza kudeatzen duela, noiz-eta eraikitako ondarea baldintza txarretan egon eta bertako iriste erraztasuna eta energia eraginkortasuna hobetzeko modukoak izanda, egoiliarrek bizilagun zaurgarriak direnean. Era berean, SURBISAk Bilbo hiri osoa hartuta, Hiri Berroneratzearen sailak emandako enkarguei zerbitzu emateko egokitzen zaizkionak.

Beronen funtzioak honako hauek izango dira, besteak beste: Surbisak sustatu eta kontratatu ahalko lituzkeen obra-egikaritzeen zuzendaritzari dagozkionak; sustapen pribatuko

birgaitzei laguntza teknikoa, zentzu zabalean; Elkartearen eskumenekoak diren udal administrazio-espeditenteen euskarri teknikoa, dirulaguntzen espeditenteak, higiezin peritatze eta balioespenak, energia eragingarritasuneko egiaztagiria, eraikitako eraikinen kontserbazio eta erabilerari buruzko txostenak egitea, hirigintza antolamendu eta kudeaketa. Bai eta SURBISAren esku-hartze eremuan eta enkargatutakoetan kokatutako higiezin jabe partikularrek sustatutako birgaitze prozesu batean, aldean interesak barnetik adiskidetzeko lana eta bitartekotza egitea ere.

Dagozkion Buruzagitzen menpe, lanpostuari dagozkion zereginak beteko ditu: eraikin eta etxebizitzan (partikularrak eta Auzokideen Elkartek) birgaitze lan pribatuen espeditenteen kontrola eta jarraipena; administrazio espeditentetarako txosten teknikoak (obra txikien baimenak, egikaritze aginduak, balioespenak, e.a.); obren proiektu, egikaritze eta kontrola (zaharberritzeak, birgaitzeak eta urbanizazioa); lanpostuari dagozkion eta agintzen zaizkion beste zeregin batzuk.

Surbisako langile-taldeko lanbide arteko taldeekiko zuzeneko koordinazioan, Hiri Birgaikuntza sustatzeko eta indartzeko egoki diren euskarri, aholku, kudeaketa eta ezagupen teknikoak eskainiko ditu.

LAUGARRENA.- LANPOSTUA BETETZEKO HAUTAGAIEN BETEKIZUNAK

Hautatze prozesuan onartuak izan eta, hala badagokio, parte hartzeko, hautagaiak honako betekizun orokor eta espezifiko hauek bete beharko ditu hautagaitzak aurkezteko epea amaitu aurretik, hautatze prozesuan zehar eta dagokion lan-kontratua formalizatzen den arte:

- 1) Arkitekto Teknikoko gradua edo homologagarria den titulazioa izatea, indarrean dagoen araudiarekin bat eginez lanbide arautuan aritzeko gaitasuna ematen diona. Titulazioa atzerrian lortu duten hautagaiak dagokion baliozkotzea edo, kasua bada, homologazioa egiaztatzen duen ziurtagiria edo kredentziala dutela egiaztatu beharko dute.
- 2) Espainiar nazionalitatea, edo Europar Batasunaren kide diren Estatuetakoa, izatea. Europarrak ez diren atzerritarren kasuan, euren titulazioa homologatua dagoela egiaztatu beharko dute, eta egoitza baimena eta kontratazio honetarako administrazio-baimena eduki beharko dute.
- 3) Euskarazko 2. HE edo B2 mailako titulu ofiziala edukitzea.

- 4) Nahitaezko erretirorako adina gaindituta ez izatea, lanpostuko zereginak betetzea oztopatuko liokeen akats fisiko edo gaixotasunik ez izatea, betiere, desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzearekin lotuta aplikatu daitezkeen araudiaren kaltetan izan gabe.
- 5) Legez aurreikusitako bateraezintasun edo ezgaitasunen balizkoren batean eroria ez egotea.
- 6) Edozein Administrazio Publikotako zerbitzutik diziplina-espedita baten bidez baztertuta ez izatea, edota enplegu publikoak betetzeko desgaituta ez egotea. Atzerritarra izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea eta funtzio publikorako sarbidea oztopatzen duen diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea egiaztatu beharko du.

BOSGARRENA. - ESKARIA AURKEZTEA

- A) Hautatze prozesuan parte hartzeko eskaria, eskatutako dokumentazioarekin batera, Surbisak Erronda kaleko 6.ean dituen bulegoetan bertaratuta aurkeztu beharko da, edo, selección@surb.bilbao.eus helbidean.

Hautagaiek euren hautagaitza entregatu eta euren curriculumak bidali beharko dute, **Erreferentzia Surbisako Arkitekto Teknikoa 2025** eskaintzari erantzunez, honako dokumentazioa erantsiz:

1. **Eskari orria**, non Laugarren Oinarrian eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituela adierazten duen, SURBISAren web-eko ereduari jarraituz (surbisa.eus, Kontratugile Profila / Langileak Aukeratzea atalean).
2. **NAN** edo dokumentu baliokide baten **fotokopia**
3. **Curriculumak**
4. Deialdian parte hartzeko eskatutako **titulazio ofizialaren kopia**
5. **Eskatutako Euskara mailaren** edo gorakoaren **titulu ofizialaren kopia**
6. **Lan Bizitzaren** agiria
7. Alegatutako merituen Erantzukizunpeko Adierazpena, erantsitako ereduari jarraitzen diona, eta lanpostuaren iraupena, kategoria eta funtzioak jasotzen dituena.
8. Merituen, lan eskarmentuaren eta ikasketen justifikazio dokumentala.

Eskariak **2024ko azaroaren 22ra** arte aurkeztuko dira, egun hori barne.

B) Alegatutako merituak kontuan hartuak izan daitezen, osoki eta behar bezala justifikatu beharko dira dokumentu bidez aurkezteko unean, bestela, ez dira kontuan hartuko:

B.1. Eskarmentuaren Akreditazioa:

- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN edukiaren ziurtagiriak, zeinetan alegatuta merituen egiazkotasuna bermatu eta oinarri hauen eranskinetan dagoen ereduaren adierazitako datuak jasotzen diren. Adierazpen hori mekanografikoki beteko da. Epaimahai Kalifikatzaileak aleatorioki egiaztatu egin ditzake erantzukizunpeko adierazpen pertsonalak.
- Dagokion Aparailari eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialak igorritako EGIAZTAGIRIA, zeinetan Zuzendaritza Fakultatiboa burutu dueneko birgaitze obrak jasotzen diren, kasua bada.
- EuskoRegitnek edo Energiaren Euskal Erakundean / Industria / Eusko Jaurlaritza, hurrenez hurren, erregistratutako EITEen eta Energia Eraginkortasun Ziurtagirien zerrenda.

B.2. Titulazio eta ikasketen akreditazioan honako datu hauek jasoko dira:

- *Tituluaren edo prestakuntza ikastaroen izendapen ofiziala.*
- *Egiaztagiria igorri duen erakundea.*
- *Ikastaroaren ordu kopurua.*

Aurkeztutako kopiek aurrealdea eta atzealdea izango dute, kasua bada.

SEIGARRENA.- HAUTAGAIK ONARTZEA

Eskariak aurkezteko epea amaitutakoan, Epaimahai Kalifikatzaileko presidentek onartu eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda onetsi eta argitaratu egingo du SURBISAren web orrian (www.bilbao.eus/surbisa, kontratugilearen profilean).

Zerrenda horretan baztertu gisa agertzen diren hautagaiek bi egun (2) balioduneko epea edukiko dute, Surbisaren web orrian argitaratzen denetik zenbatzen hasita, baztertzea arrazoitu duten akats edo omisioak konpontzeko. Zerrenda hori 2024ko azaroaren 29an argitaratzea aurreikusten da.

Behin-behineko zerrenda automatikoki behin betikotzat hartuko da erreklamaziorik aurkeztu ezean. Erreklamazioak egonez gero, aintzat hartuko dira edo ez dira aintzat hartuko ebazpen batean, zeinen bidez behin betiko zerrenda onetsiko den. Hau aurrekoaren modu berean argitaratuko da.

Behin-behineko zerrenda onestearekin batera, frogen faseko lehenengo azterketarako eguna, ordua eta lekua argitaratuko da. 2024ko abenduaren 17an egitea aurreikusten da, 10:00etan, bere garaian zehaztuko den Bilboko leku batean.

Epaimahai kalifikatzailearen komunikazio eta jakinarazpen guztiak SURBISAren web orrian argitaratuta egingo dira, bai eta posta elektronikoko pertsonalaz, hala dagokionean. Data eta epeen kontaketarako Surbisaren web ofizialean (www.bilbao.eus/surbisa kontratugilearen profilaren atalean) argitaratu deneko egunari begiratuko zaio.

ZAZPIGARRENA. - EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA

Frogei Epaimahai Kalifikatzailea honela egongo da osatuta:

- Presidentea: Elkarteko Zuzendaria edo honek eskuordetutako pertsona bat
- Mahaikidea: Elkartearen Administrazioako Arduraduna edo honek eskuordetutako pertsona bat
- Mahaikidea. Elkarteko Arkitekto Teknikoetako bat
- Mahaikidea: Langileen ordezkaria.
- Idazkaria: Elkarteko aholkulari juridikoa edo honek eskuordetutako pertsona bat.

Frogetan, egoki irizten zaionean, Epaimahai Kalifikatzaileak adituen laguntza eskatu ahalako du hainbat gaitan erabakitzekeo garaian.

Epaimahaiak erabateko autonomia funtzionala izango du, prozeduraren legezotasuna zainduko du eta beronen objektibotasuna bermatzeaz arduratuko da. Era berean, antolamendu juridikoarekin bat eginez, Oinarriak aplikatzean sor litezkeen zalantza guztiak argituko ditu eta hartu beharreko erabaki guztiak hartuko ditu prozesuaren garapenean ordenari eusteko; horretarako, bertan aurreikusi gabeko balizkoekin lotuta, dagozkion irizpideak ezarriko ditu.

Idazkari lanak betetzen dituenak hautatze prozesuan burututako jardura eta frogei Akta beteko du; bertan, izendapenen proposamena eta ordezkoen lehentasun ordena jasota geratuko da. Behin Epaimahaiak onetsitakoan, Aktaren berri emango zaio Administrazio Kontseiluari; hala ere, kontratazio erabakia Surbisako Presidenteak hartuko du eta kontratazioa Zuzendariaren bitartez formalizatuko da.

ZORTZIGARRENA. - HAUTATZE PROZESUA

Deitutako lanpostua beteko duen pertsonaren hautapena oposizio-lehiaketa sistema bidez egingo da.

Guztira gehienez 38 puntu lortuko dira, hau da, hori izango da, gehienez, proba guztietan lortutako puntuen batura, betiere, oinarri hauetan jasotakoari jarraituz, baztertzailak diren probak gainditu baldin badira.

Hautagaiak fase bakoitzerako SURBISAren web orriaren bitartez izango dira deituak, eta posta elektronikoz oharra bidalita. Epaimahaiak probak egiteko adierazitako leku, egun eta orduetan agertzen ez diren pertsonak hautatze prozesutik kanpo geratuko dira. Epaimahaiak behar bezala justifikatutako eta libreki balioetsitako ezinbesteko kausak daudenean salbu.

Prozesua hiru zatitan banatze da:

A) Froga teorikoa, nahitaezkoa eta kanporatzailea (0 puntutatik 20ra)

Lanpostuaren zereginekin eta Hiri Birgaikuntza espezialitatearekin lotutako ezagupenak eta arkitektura teknikoko lanak zuzen betetzen dituela egiaztatzea zuzendutako idatziz erantzun beharko dira galdera laburrei eta test motakoei ariketa honetan. Bereziki, Zazpikaleetako, Bilbo Zaharreko eta Bilboko Hirigintza Antolamendu Plan Orokorreko hirigintza araudiari, iriste erraztasun baldintzei, Eusko Jaurlaritzak hiri birgaikuntza eta iriste erraztasuna sustatzeko hartutako neurriei, energia eraginkortasunari eta eraikinen araudi teknikoei lotutakoak izango dira, besteak beste.

Automatikoki baztertuta geratuko dira frogan gutxienez 10 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak.

B) Merituen balioespena (0 puntutatik 8ra)

Froga teorikoa gainditzen dutenak merituen balioespen fasera pasako dira; merituen Epaimahai Kalifikatzaileko idazkariak aztertuko ditu eta txosten bat igorriko du; txostena Epaimahai Kalifikatzaileak onetsi beharko du, beti ere merituen horiek horretarako prestatutako erantzukizunpeko adierazpenean alegatuak eta behar bezala seinatuak badira.

Lanbide eskarmenturako alegatutako merituen balioetsiak izateko, lanbidez txostenean agertzeaz gain, erantzukizunpeko adierazpenean edota Elkargo Ofizialeko egiaztagirian zehaztuta egongo dira, Erregistro Publikoetakoa, edo erantzukizunpeko adierazpen pertsonal batekin osatuta egongo da.

Gehienez 8 puntu lortuko dira, atal honetan jasotakoari jarraituz banatuta eta egiaztatuta.

Balioestekoak diren merituen honako hauek izango dira:

B.1 Betetzekoa den lanpostuko eginkizun berberetan edo antzekoetan duen lan eskarmentua (0 puntutatik 6,5era).

Honela emango dira:

- a) 2 puntu arte: Birgaitzeko Hirigintza Elkarteetan edota helburu berbera duen erakunde publiko batean bakoitzeko lanagatik (365 egun) 0,5 puntu.
- b) 1 puntu arte: Udal administrazioan urte bakoitzean lanagatik (365 egun), 0,25 puntu.
- c) Puntu 1 arte: Azterketa Teknikoetan burututako lanak; eraikin baten iriste erraztasuna edo energia eraginkortasuna hobetzeko egitura eta eraikuntza egokitzapenerako eraikinaren birgaikuntza lanetan zuzendaritza fakultatibo bakoitzeko 0,20 puntu, dagokion Aparailari eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialak igorritako ziurtagiriaz egiaztatuz gero.
- d) 0,5 puntu arte: Eraikuntza enpresa batean urte bakoitzeko lanagatik (365 egun), 0,25 puntu.
- e) 1 puntu arte: 0,10 puntu, burututako eta EuskoRegiten erregistratutako EIT txosten bakoitzeko.
- f) 1 puntu arte: 0,10 puntu, eraikineko, burututako eta Energiaren Euskal Erakundean erregistratutako Energia Eraginkortasuneko Egiaztagiri bakoitzeko.

Hiri Birgaikuntzako antzeko lanetan bi urteko eskarmentua egiaztatzeko alegatutako meritua kontuan hartuko dira balioespena egitean.

B.2 B2 maila edo baliokidea: ingelesean, alemanieran, frantsesean edo atzerriko beste hizkuntza batean (0 puntutatik 0,50era)

Honela emango dira:

- 0,10 puntu B2 bakoitzeko, atzerriko hizkuntzan

B.3 Prestakuntza (0 puntutatik 1era)

Deitutako lanpostuaren funtzioekin lotutako eta behar bezala egiaztatutako ezagupenak balioetsiko dira, betiere dagokion hautatze prozesuan onartua izateko eskatzen dituzten gutxienekoak edo maila handiagokoak dituztenean.

Honela emango dira:

- 0,30 puntu, urtebetetik gorako ikastaro, gradu osteko edo master bakoitzeko.
- 0,15 puntu, 100 orduetik gorakoetarako.
- 0,05 puntu, gainerakoetarako, gutxienez 40 ordukoak badira.

Aurkeztu diren titulazioen eta/edo egiaztatgiriaren kopiek aurrealdea eta atzealdea izango dute, kasua bada, ahal dela pdf bakar batean.

C) Elkarrizketa pertsonala froga (0 puntutatik 10era)

Elkarrizketa froga egingo zaie hautagaiei. Gehienez 10i. Hauek lehenengo fasea gaindituta dutenak eta egiaztatutako merituetan puntuazio altuenak lortutakoak izango dira. Ez dira hautapen honetan sartuko puntuazio altuena duen pertsonarekiko 10 puntuko aldea duten pertsonak, froga honen gehieneko puntuazioa 10 puntukoa baita.

Otik 10erako puntuazioa emango zaio. Proba hau baztertzaileria izango da 5 puntu lortzen ez dituztenentzat.

Hautagaia lanposturako egokia den jakitea izango da xedea: talde-lanerako gaitasuna, antolamendu gaitasuna, Surbisako taldearekiko eta komunitatearekiko konpromisoa eta erantzukizuna hartuko da kontuan, bai eta bere ikuspegi proaktiboa eta berritzailea ere.

Epaimahai Kalifikatzaileak elkarrizketak dirauen bitartean galderak egin ahalko ditu, zerbait argitzeko edo zabalago azaltzeko eskatu, bai eskatutako ezagupenei buruzko kasu praktikoen gainean, bai lanpostua betetzeko lan eskarmentuaren gainean eta pertsonaren ezaugarrien gainean; horrela, Surbisan bete beharreko lanpostura ondoen egokitzen den pertsona kontratatu ahal izango da.

Elkarrizketa 2025eko urtarrilaren hirugarren astean egingo dela aurreikusten da.

BEDERATZIGARRENA. - ARIKETEN KALIFIKAZIOA ETA EMAITZEN ZERRENDAA

Ariketa bakoitza amaitzean, Epaimahai Kalifikatzaileak Surbisaren web orrian (www.surbisa.eus kontratugilearen profilean) argitaratuko du gainditu duten hautagaien zerrenda eta, kasua bada, lortutako puntuazioa.

Proba bakoitzaren emaitza kontsultatu edo erreklamazioak jartzeko, idatzi bat bidali beharko da Surbisaren posta elektronikora (seleccion@surb.bilbao.eus). Horretarako, 2 egun baliodun egongo dira emaitza Surbisaren web orrian (www.surbisa.eus kontratugilearen profilean) argitaratzen denetik kontaktzen hasita; erreklamazioak Epaimahai Kalifikatzaileak aztertu eta pertsonalki erantzungo die hautagai erreklamaziogileei.

Behin betiko sailkapen ordena faseetan lortutako puntuazioen batura izango da. Hautapen prozesuaren amaierako kalifikazioak zehaztuko du hautagaien lehentasun-ordena.

Puntuazioan berdinketa egonez gero, ondoren zehazten diren irizpideei begiratuko zaie, lehentasun ordena honetan:

- a) Elkarrizketa frogan eta kasu praktikoetan puntuazio altuagoa lortu izana.
- b) Lan eskarmentuaren balioespenean puntuazio handiena lortua izana.

Hautagaiak, proba guztiak gaindituta, hautatuak izan ez direnean, Lan Poltsa batean sartuak izango dira, SURBISAren eremuan edo udal eremuan lanbide profil honetako lanpostu hutsak betetzeko, behin betiko kalifikazioak argitaratzen direnetik hasi eta bi urteko epean.

HAMARGARRENA. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA, KONTRATATZEA ETA FROGALDIA

Proposatutako hautagaiak luzeen jota 10 egun naturaleko epean, behin betiko sailkapen ordena argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, hautatze prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten jatorrizko dokumentuak aurkeztuko ditu.

Proposatutako hautagaiak 2025 urteko otsailean zerbitzua emateko disponibilitatea izan beharko du. Data horren aurretik, dagokion kontratua egiteko beharrezkoa den dokumentazioa eraman beharko du Surbisako bulegoetara.

Baldin-eta proposatutako hautagaiak eskainitako lanpostuari uko egingo balio edo deialdian eskatutako edo kontratua formalizatzeko beharrezko betekizunak egiaztatu ezingo balitu, ezingo da kontratatua izan, bere jarduketa guztiek ez lukete eraginik izango eta bere kontrataziorako lagungarri izan zitezkeen eskubide guztiak galduko lituzke, hasierako eskarian gezurretan ibiltzeagatik izan lezakeen erantzukizunaren kaltetan izan gabe. Balizko horretan, kontratazio proposamena egingo da ariketa guztiak gaindituta izan eta, amaierako puntuazioaren araberrako ordenari begiraturaz, hurrengo lekuan legokeen pertsonaren edo pertsonen alde, eta hori guztia eskatutako baldintzak eta betekizunak betetzen direla aurretik egiaztatuta.

Era berean jokatu da kontratatutako hautagaiak aurrean finkatutako probaldia (6 hilabete) gainditzeko ez badu.

Organo eskudunak Epaimahai kalifikatzaileak proposatutako hautagaia kontratatuko du, behin oinarri honetan aipatutako dokumentazioa aurkeztutakoan.

HAMAIKAGARRENA. DATUEN INGURUKO BAIMENA ETA BABESA

Hautagaiek deialdi honetan parte hartzeko beharrezkoak diren datu pertsonalen tratamendurako baimena ematen duten gai honetan indarrean dagoen araudian ezarritakoarekin bat eginez.

Emandako informazioaren tratamendua, azterketa eta artxibatzea datuen babesari buruzko legedia beteta egingo da, eta horren helburu bakarra hautatze prozesu honen burutzapena izango da, interesatuak eskaera-inprimakia sinatzean eman duen adostasunarekin.

Ez zaio daturik inori emango, Bilboko Udaleko Lan-poltsarako izan ezik, eta legeak ezarritako epean gordeta edukiko dira “langileen aukeraketa” fitxategian.

Bilbon, 2024ko urriaren 25ean.

ERANSKINA. AURKEZTUTAKO MERITUEN ETA ESPERIENTZIAREN ZINPEKO DEKLARAZIOA.

ERANSKINA Aurkeztutako merituen eta esperientziaren zinpeko deklarazioa

IZEN-ABIZENAK:NAN::SURBISA UDAL-ENPRESARAKO ARKITEKTO TEKNIKO LANPOSTUA
BETETZEKO HAUTAKETA-PROZESUAREN AURREAN

Zinpeko deklarazio honen bitartez adierazten dut, batetik, deialdiko oinarrietan zehaztutako baldintza guztiak betetzen ditudala eta egiaztatu ditzakedala; eta bestetik, esperientzia lan hauetan jaso dudala:

Enpresa: izena eta helbidea. a) b)	Hasitako eguna: urtea/hilabetea/eguna Amaitutako eguna: urtea/hilabetea/eguna	Lanpostuaren izena eta lanbide- kategoria.	Egindako lan garrantzitsuenak eta lanpostuko zeregin nagusiak.	Oharrak/argibideak.
Birgaitze-proiektua, EIT edo EEZ. Eraikinaren kokapena. c) d) e)	Etxebizitza-kopurua eta solairuak.	Jabetza pribatu edo publikoko eraikina.	Obren deskribapena eta birgaitutako eraikinaren helmena eta elementuak.	Oharrak/argibideak.

.....n,(e)ko ren(e)an.

Sinadura:

ARKITEKTO TEKNIKOA LANPOSTUAREN AUKERAKETA PROZESUAN PARTE HARTZEKO ESKAERA
ORRIA
INSTANCIA DE SOLICITUD PARA PARTICIPAR EN EL PROCESO DE SELECCIÓN DEL PUESTO DE
ARQUITECTO/A TÉCNICO/A

HAUTAGAIAREN DATU PERTSONALAK / DATOS PERSONALES DE LA PERSONA ASPIRANTE

NAN/DNI	Izen-abizenak/Nombre y apellidos	
Telefono mugikorra /Teléfono móvil	Helbide elektronikoa/ Mail	
Probak egiteko hizkuntza /Idioma para realización pruebas	Euskera <input type="checkbox"/> Castellano <input type="checkbox"/>	

HAUTAGAIAREN DATU PROFESIONALAK /DATOS PROFESIONALES DE LA PERSONA ASPIRANTE

Ikasketa eta titulazioak/ Estudios y titulaciones			
Ikastaro eta ezagupenak /Cursos y conocimientos	Titulua/Título		Ordu kopurua/ Nº horas
Lan eskarmentu aipagarria eta lanpostuarekin lotutakoa /Experiencia Laboral relevante y referida al puesto	Erakundea/ Entidad	Jarduera / Actividad	Denbora/Tiempo

AITORPENAK ETA BAIMENAK/ DECLARACIONES Y CONSENTIMIENTOS

EZ/NO <input type="checkbox"/> BAI/SI <input type="checkbox"/>	Aurkeztutako datu eta dokumentuak egiazkoak direla aitortzen du /Declara que los datos y documentos aportados son veraces
EZ/NO <input type="checkbox"/> BAI/SI <input type="checkbox"/>	Parte hartzeko baldintzak betetzen dituela aitortzen du /Declara que cumple los requisitos para participar
EZ/NO <input type="checkbox"/> BAI/SI <input type="checkbox"/>	Bere datu pertsonalak oinarri hauetan jasota bezala tratatzea onartzen du /Consiente el tratamiento de sus datos personales conforme a lo recogido en las Bases.
EZ/NO <input type="checkbox"/> BAI/SI <input type="checkbox"/>	Beste batzuk/ Otros...

ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA/ APORTADA JUNTO A LA SOLICITUD

<input type="checkbox"/>	Curriculum Vitaea/Curriculum Vitae
<input type="checkbox"/>	NANaren fotokopia/Fotocopia DNI
<input type="checkbox"/>	Titulazio Ofiziala/Titulación Oficial
<input type="checkbox"/>	Euskara-maila egiaztatzea/Acreditación nivel Euskera
<input type="checkbox"/>	I. eranskineko erantzukizunpeko adierazpena/Declaración Responsable anexo I
<input type="checkbox"/>	Alegatutako merezimenduen frogagiriak/Justificantes méritos alegados



Arkitekto Tekniko lanposturako Hautatze prozesuan parte hartzea eskatzen dut eta Deialdiaren Oinarrien baldintza arautzaileak onartzen ditut / Solicito participar en el proceso de Selección del puesto de Arquitecto/a Técnico/a y acepto las condiciones regulatorias de las Bases de la Convocatoria

Sinadura / Firma